



Jatorrizko izenburua: THE DRAGON AND  
THE NIBBLESOME KNIGHT

1. argitalpena: 2024ko maiatzean

Testua: *Elli Woollard*

Irudiak: *Benji Davies*

© 2016, Macmillan Children's Books, Macmillan  
Publishers Ltd-ren argitalpen-zigilua,  
Macmillan Pub. Int. Ltd-ren sail bat.

Itzulpena: *Iñigo Satrustegi*

© 2023, Ediciones Obelisco, S. L.

ISBN: 978-84-9145-712-1

LG B 19207-2023

*Printed in China*

Emily Ford ikaragarriarentzat eta  
zoragarriarentzat, esker onez.

E.W.

Eleanorrentzat.

B.O.

Testua: ELLI WOOLLARD

Irudiak: BENJI DAVIES

# Herensugea ✈ eta Zaldun GOXO-GOXOA



*Amildegian baziren herensuge ugari!  
Mutikoak zituzten gosaria; neskak, berriz, afari.  
Mokadu maiteenak ez ziren, ez brokolia, eta ez bainak,  
zaldun goxo-goxo gustagarriak, bai alajaina.*





Dram txikiari ahoan haginak ateratzearekin batera,  
gurasoek bidali zuten bere kaxa bizitzera:  
«Estu geratzen ari da habia, atera behar duzu hegan.  
Segi zaldun goxo baten bila, ehunka dituzu aukeran!».

Dram gazteak hegala astinduz, abiatu zen urrun.  
Orduan, tximistak egin zuen ZIK-ZAK!  
eta trumoiak, berriz, BURRUN!





Zakarra zen haizea. Euria goian-behean.  
Dramek bukatu zuen Munduaren amaieran.



Danba! Koskoteko ederra hartuaz.  
Harik eta zalaparta batean egin zuen arte tupust,




Aintzira Handiaren ur hotzekin...

PLACUST!





Zeruari begira, ur-ertzean Amaiur xelebrea  
sekula inoiz herensuge bat ikusi gabea.  
«Zer izan ote da hori? Ahate bitxia ematen du edo?  
Min hartu duela dirudi! Zer egin? Hori zoritxarra gero!»



Burdin jantzia kendu, eta esan zion irriño batekin:  
«Banator, ez kezka!» eta igeri egiteari zion ekin.



«Mutil bat?», pentsatu zuen Dramek. «Tira, azkar topatu dut jakia.  
Ez da zaldun goxo bat, baina badut aitzakia.  
Hatzaparrak ateratzen saiatu arren, ordea,  
hanka okerra zuen. Hori kalamidadea!»



«O, ahatetxo», esan zion Amaiurrek. «Zauriturik zaude oso!  
Nik sendatuko zaitut, egon arte itxuroso».

